

EUSKAL-SINISMEN ETA ESAUNDA BATZUEK BERTAKO BIZIKERAI BURUZ *

Errien esaunda eta ipuiak, bertakoen gogamenari edo euren berezko joerai dagozkienak izan oi dira. Beraz erriaren berezko joerak eragiten die, aoz-ao gure aurrekoetatik datorzkigun ipui askoren sustrai eta zurajeari.

Ipui eta esaunda oiek azterkatzen ba-ditugu, ikusten al degu eurretako asko berdin esoiduak daudela, *gai iraunkor* batzuetan sustraituak alegia, edo orien arabera eratuak ageri zaizkigunak. Esate baterako, ara nola: lagun bat edo sendi bat zoriontsu bizi zan; bainan beren ibilaldi, ain ongi asia zuen ortan, ezbearra sortzen zaio, gaizkiñen batek zorigaitza dakarkio; burruka eta gora-bera belun askoren ondoren, lagun edo bitarteko miresgarri bat eltzen zaio eta gero bere onera edo zorionera irixten da.

Gai iraunkor oriekin estekatuak ageri zaizkigu esaundetan *gai aldakorrak* ere, tokian tokiko bizikeren oiartzunak, lurralde eta aro bakoitzeko lanbide eta oikundeen azterrenak, ikusbiraren irudiak; mendi, arpe, ibai eta itxaso, bide, zubi, etxe eta gaztelu, eliza, elizaño eta beste oroigailuenak; santuen eta gizurenen oroipenak; mamu eta ireluen oroitzak, e.a. Gai auei guztiai esker, esaun-

* Donostiako Filosofia Eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatean (Euskal Herriko Unibertsitatea) egindako itzaldia, 1981go Orrillaren 11n.

dak eta ipuiak errien eta beren ezikeren ezaugarri eta bereizgarri bilakatzan dira.

* * *

Esaunden gai *aldakorrak* tokian tokiko bizikerai lotuak ageri dirala esan det.

Eizetik bizi izan ziran leen-aroetako gure arbasoak. Orduko aizketaren alde batzuek, gaurdaño iritxi zaizkigu. Leku-izen batzuek ere gauza bera adierazten digute: *Otsaarte, Artzate, Otsozuloeta, Akerrate* eta *Usategieta*.

Eizari buruz ba ditugu esaundak eta ipuiak. Ona bat: Anai-arreba bi, gazteik umezurtz eta beartsu geldituak, jaun baten bidez mendi batera juan omentzien, ango basetxe bat beren aterbe edo bizilekutzat artu. Eta an, mutilla eizean eta neskatxa etxe-zai, bizia aise ateratze omen zuten. Bainan etsaia eltzen zaie bakartasun artan, eta mutilla badarama bere gaztelu batera. An baiturik presondegi artan dagoela, deadarka dei egiten die bere eizeko zakurrai. Auek ba-datoz eta misteriozko gaztelu aren ateak ausi eta beren nagusia askatzen dute. Gero eiztariak bere zakurrekin iltzen du mendi aietan zegon iraunsuge bat. Lurrak de artako erregeak saristatzen du eginkari orregatik. geroztik zorionekoak izan omen ziran biak.

Lenengo artzaiari eta eiztariari buruz ba-degu ipui bildurgarria bat. Zegama'n, Saadar izeneko mendi batean jazo zan gertaera. *Antimuño* baserriko bi anai jua omen ziran eizera. Eguraldi txarrak eman eta *Saadar*-mendiko etxe batean sartu. Etxe ura *Torto* izeneko irelu batena izan. Laster etorri omen ziran ardiak eta bertan sartu eta beren atzetik *Torto*. Onek arri aundi batekin ixten du atea eta bereala eiztari aietako bat jaten du eta lurreean etzanda loak artu. Beste eiztariak, an zegon burruntzi batekin *Torto* itxutendu eta aren mendetik irten, eta iges.

Eiztariak esaunda geiagotan ageri dira. Ara emen gertaera bat: Haro'tar Lopez (Diego), Bizkai'ko jauna mendira igo eizera. Arkaitz baten gainean ikusten du emakume eder bat. Asi dira izke-

tan eta bata besteagaz liluratu eta itxutu. Elkarri ezkontzeko itza eman eta gero ezkondu. Emakume ura Marimunduko omentzan.

* * *

Motriku'n ba-da *Jentiletxeeta* izeneko toki ba median. Ango arpe batean egoten omentzan artzai bat eta inguruan biltzen omentzuen bere artaldea. Artzai orrek suga bati azkurritzaz esnea egun oro ematen omen. Txistu egiñaz, adierazten omentzion sugeari esnea an zuela. Bainan aldi luzerako artzaiak andik alde egin bear izan omentzuen. Bein ordea, lagun batzuekin, itzuli omentzan *Jentiletxeeta*'ra. Eta jakin naiaz oraindik ere suga an ote zebillen, txistu egin omentzion. Baita bereala, agertu ere suga aundi bat, eta kueztan-kueztan gizonari soina biribilkatu oñetik leporaño, eta ito artzaia.

* * *

Ireluak eta artzaiak. Aralar-inguruan dago *Marumendi* izeneko mendi bat, eta bere ondoan leize aundia. An bizi omentziran *Maruak*, bekokian adar bi zituzten ireluak. Bein Ataun'go *Sastei-saltse* baserriko iru anai asi omentzien leize inguruan txabola bat egiten. Ba-da esaera auzoak ondo izateko etxeak ez direla elkarregandik urbil egon bear. Orregatik nunbait irten omen zitzairen iru artaiai leizeko Maruak bildurgarrizko keinuak eginez. Artzaiak igesi, Maruak atzeti. Estu eta larri, bidean il omentziran artzai bi. Irugarrena bakarrik etxera iritxi eta onik atera: ireluak ez baitute etxe batean, bertaku buruzagien baimen gabe, sartzarik.

* * *

Nekazaritza esaundetan. - Nekazaritzari buruz ba-ditugu zenbait esaunda. Gipuzkoa'ren lurralde auetan etziran lenengoz sortuak artoaren eta gariaren ereitea. *Ausa-gaztelu'n* —Zaldibia-gainean dagon medi-tontorrean— jentillak bizi omentziran. Garia bear ogia egin da jateko, eta jentil bat Naparro'ra jua gari-billa. Idinarruz eginiko zazpi zorro, gariz bete beteak, bizkarrean zituala omen zetorren Naparroa'tik. Ausagazteluren azpikoaldean dagon iturrondora iritxi zanean, antxe, urtara juana, berè alaba. Onek esan omen: *aita, atsedén eta itxaro emen, ura edan arte, aski nekatua etorriko zera-ta*. Eta aítak erantzun: *jakin banu bidean atsedén nezakeala, beste zazpi idinarru-gari ekarri al izango nituan*.

Ori bera esan oi da Zegama eta Zerain aldeko *Arrola'n* bizi ziran jentillezaz ere. Auek ordeá Araba'tik ekartzen omentzuten garia.

Ba-dira zenbait esaunda artoa eta garia nola gizakien artean sortu eta ereinak izan ziran adierazten digutenak. Ara emen orientako bat:

Ba-da Ataun'en *Muski* izeneko mendi bat, Alsasu'ko mugatik urbil. Mendi artako arpe batean basajaunek bizi eta auek ango zelaietan garia ereiten eta biltzen, gero ogia egiteko. Beeran —ibarrean— bizi omentziran gizakiak: auek etzuten galazirik, ez ogirik. Bainan euretako bat jua omentzan bein *Muski* mendira eta basajaunekin mintza. Aurrean omen zeukaten garipilla aundi bat bilduta. Gizona eta ireluak (basajaunak) leiaketan jauzka asi omen. Gizona garipillan sartu eta galalez bere abardak bete. Gero, ireluak agurtuta, andik aldegin, bere abarkaetan galalea zemakiala.

Ale ori erein eta urrengo udan uzta bildu. Ala gizakiak asi omen ziran lurra erabili, garia erein eta ogia egiten.

Esaunda bera dabil lenengo artoagaz Euskalerri'ko beste erri batzuetan.

Tresnagintzak eman du Euskalerrian zer esan aundia. Ortan ibili dira Olak, aroztegiak, sutegiak, e.a. Orregatik olagizonak eta euren asmakuntzak ipuetan utzi dizkigute orripenak ugari.

Jentillak, ustez eta indar aundikoak. Auetako batek bere indarrak gizakienakin neurtu bear zituela-ta, Aralar-aldeetik ibarre-

ra jetxi omentzan. Bidean ume bat billatu eta berari galde: *gizona al aiz?* —*Oraindiez*— erantzun umeak.

Gero gizon zaar bat ikusi eta arere galde: *gizona al aiz?* —*Gizon izena, orain ez-erantzun zaharrak*— *Bainan* —Yartza'ko ola erakutsiaz— *etxe hortan ba dituzu gizonak*.

Jotzean duan atea jentillak, eta bereala olagizon bat irten. Jentillak oni galde: *Gizona al aiz? Gizon batekin nere indarrak neurtzeko asmoan etorri nauk*.

Olagizonak: *Ondo ek, gizona nauk eta borroka gaitezen*. Holagizonak, burdin sardaka bat sutan guritua artuta, sudurretik bearekin eltzen dio eta sudurra kendu eta aurpegia erreentillari. Jentillak, deadarka, iges, esanaz gizonak atzamar gaiztoak dauzkatela.

Beste gertakizun bat. Arrasate'n iraunsuge batek *Murugain* menditik jetxita, izugarritzko giza-hiltze eta beste kalte asko noiz-nai egiten omen zituan. Herri guztia bildurrez bizi omentzan. Azkenean, berarekin antola behar zirela-ta, itz eman omen zioten, noizean bein iraunsugeari jateko lagun bat bialduko ziotela. Hala, erriko lagunaren artean zotz eginda, bialtzen ometzioten esandako egunetan, lagun bat.

Bein neskatiila bategana zotzak jo, eta bera igo omentzan *Murugaine*'ko apalera. Han omen zegoan iraunsugea noiz etorri itxaroten. Bere senargaia olagizona omentzan eta an, muturra sutan guritutako burdinaga bat eskuan zuala, lasterka andragaiaren ondora igo eta iraunsugeak neska jateko aua ireki zuanean, burdinagaren mutur guritua sartu berari eta eztarria eta urdaila kixkali eta iraunsugea kalitu. Hala gaizkatu bere andragaia eta bere herria.

Olagizonak eta burdinarotzak, ireluai lapurtuta, asmakari asko gizadiari ekarri dizkiotela adierazten digute zenbait esaundak.

Samartin-txiki burdin-arotza omentzan; bainan etzekian burdina galdatzen. Ortik galera aundia zetorkion. An, inguruko arpean, zeuden ireluak berriz bazekiten.

Samartin-txiki'k bere laguntzaillea bialdi omentzuan karrikara eta inguruko bideetara desdarka: Samartin-txiki'k galdia asmatu zuala. Ori entzutean irelu batek esan zion: *beraz buztin-uraz burdina zipriztintzen ikasi dik?* —*Etzekiat ikasi duan; bainan ikasiko dik*— erantzun omentzion besteak.

Laguntzailleak esan omentzion Samartin-txiki'ri, ireluak ze galde egin zion eta bereala Samartin-txiki'k, galdatu nai zituan burdin-zati guzituak buztin-urez zipriztindu omen zituen eta burdinak galdaturik agertu omentziran. Ortik zabaldu omentzan munduan burdin-galdaketa.

Etxeari buruz ere ba-dira esaunda asko. Batez ere estalpe dalako, ireluak ere begirune zioten eta etziran sartzen ango buruzagien baimen gabe. Orregatik bere burua onik atera zuan Ataun-Sasteisaltze'ko mutil batek; baita Elorrio'ko ardazle batek ere, eta Lekeitio'ko merketariak.

Ezikeraren alderik gai garrantzitsuena, naizta denak bearrekoak, gizabidea da.

Euskalerrian ba ditugu esaundak gizabideagaz. Ona emen bat: Bein toki askotan bezala.

Senar-emazteak bizi omen etxe batean. Ba-zuten semetxo bat, Migel, ogei urteko adinera irixtean il bear zuena, miresgarritzko eskale batek ala esanda. Zenbat eta adina aurrerago eta mutikoaren gurasoak goibelago. Azkenik guraso doakabeak semeari agertu omen zioten beren beldurra. Mutillak galde: eian Kristo'ren illarrira joateko baimena emango al zioten. Ezin uka semeari bere azkeneko eskaera eta baimena eman, ustez eta ogei urte egin baino leen itzuliko al zala.

Artan, gurasoen agur laztan eta txerasuena artu ondoren, juan omen zan sortalderuntz. Bidean zijoa larik, eskeko batek aolku au eman zion: bide luze ortan bear dezu lagun bat bederen; bainan begira, lagun artean maitetasuna da lokarri: maitetasunik ez dan tokian ez da egiazko elkarterik. Zure bide luze ortarako laguna zu maite zaituan bat eta zuk maite dezuna izan dedilla. Bizpauru ekinaldiren bidez, egin zuen adiskide Kristoren hilarrira zijona, gizon adiñeko bat, Josepe. Badiojoaz biak, juan eta juan: egunak eta illak igaro eta oraino Kristoren hilarria urrun. Gau batez biak eliz-kalosttra batean lo-zeudela lapurra etorri eta bi erromesai zeuzkortzen txanporak kendu eta Migel il, Goizean erromesbagunak ikusi zuelarik Migel illa zegola oartu zan gau hartan Migel'ek ogei urte zituala. Bainan Migel illa zorroan sartu eta bizkarrran eramane Kristoren hilarriraño. An gaua igero. Goizean Jose-

pe esnatu zanean eta Migel bertan hurperatzeko asmoan zorroa iriki, Migel bizirik baillatu omentzuan. Gero biak etxeruntz. Guraso atsekabetuentzat atsegiña eta poza. *Ori ala bazan...*